

## Olinpiada Txikiko probarik gozoena

Gaurko bazkaria izango da;  
atzo, mimika proba ▶ 6



Harpidedunei banatua ▶ Igandea ▶ 2006-04-30 ▶ IV. urtea ▶ 873. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Orexa eta Asteasu, Santa Kruz jaietan murgilduta

**OREXA** ▶ Gaur, xare eta joko garbi erakustaldia, sagardo dastaketa, bertsoak eta DJ Bull izango dira

**ASTEASU** ▶ Elizmendi auzoan Laja eta Taldearen emanaldiarekin agurtuko dituzte aurtengo festak ▶ 7



Asteasuko Elizmendi auzoan, besteak beste, duatloian parte hartu zuten atzo haurrek (ezkerrean). Orexan, Zirko Tipiak taldearen *Giriguai* ikuskizunaz gozatu zuten etxeko bikienek (eskuinean). I. GARCIA / J. ASTIBIA

TOLOSA ▶



I. GARCIA

## Gorostidiren militantzia goraipatu dute

Omenaldia egin dio  
jaioterrian ezker  
abertzaleak ▶ 4

BALIARRAIN ▶

## 186 lagun bilduko dira gaur txekor jatera ▶ 4

### Udaberriko sustapena

Apirilean, maiatzean eta ekainean bakarrik.

8 geranioz osaturiko erretilua **14€**

“Zatuz gure instalazio berriak ezagutzera eta zure landarea aukeratzeko orduan edo eta zurekin gehien dijoan loraintza proiektu hori aurrera eramateko behar duzun aholkularitza izango duzu.”

Ramón Zuloaga (Zuloaga&Gweak-eko Gerentea)

943 556 109 - Iparralde bidea z/g. 20014 Astigarraga. Futbol zelaiaren aurrean.

## BAILARAKO ESKAINTZARIK ZABALENA

**ORIXE** Bigarren Hezkuntzako Institutua

**BATXILERGOA**  
Teknologia  
Natura eta Osasun Zientziak  
Gizarte eta Giza Zientziak

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA**  
Natura inguruneko kirol  
ekintzen gidaritza

**943 65 13 87**  
E-mail: 012980aa@hezkuntza.net [www.orixe.net](http://www.orixe.net)

Aurrematrikula: Batxilergoa: apirilaren 25etik maiatzaren 6ra / Erdi mailako zikloa: Ekainaren 1etik 8ra

## ESANAK ▶



OINATZ BENGOETXEA  
PILOTARIA

«Txapela, handia eta txikia, beti dago irabazten zaila»


«Irabazten eta galtzen ikasi beharra dago»

«Dejada asko egin dizkirate frontoian, hori da pilotaren legea. Bizitzak, berriz, ez dit dejada gehiegi utzi. Gaztea naiz oraindik»

'Zazpika' (2006ko apirilaren 9a)

## KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



Juan Kruz... ahoan olibondo adartxoak duenari bakarrik egin tiro...

Joe Migel... eskerrak kontrapasa Nafarroatik pasatzen den...

## HEMEROTEKA ▶

## Tolosa, Segura, Agurain, Ordizia...

Historiak badu zeresanik. 2006. urte honetan 750 urte betetzen dira euskal herri batzuen uestezko sorreratik. Agurain, Kanpezu, Tolosa, Segura, Ordizia. Orduko zirkunstantzietan kokatzeko, gogora dezagun mende haren hasieran, 1200. urtean, Gaztelako armadak orduan Nafarroako erreinua zen Euskal Herriko mugei eraso egin ziela eta, kanpaina luze baten ondorioz, lurralde ugari kendu zizkiola.

Askotan, gertakari haien inguruan bertsiogun arras eztabaidagarriak, interesatuak eta faltsuak zabaldu dira. Gezur biribilak. «Borondatezko entregaren» ipuina kontatu digute; halaber, bada lurralde horiek Gaztelak bereganatzea koroarekin egindako «paktu» baten ondorioa izan zela dioenik. Errealitate hauxe izan zen, ordea: Gasteizek, armadari aurre egin zion gune nagusiak, zazpi hilabetetik gorako setio gogorra pairatu zuen, amore eman baino lehen. Erasotzaileak atzera bota zituen 1199ko ekainaren 5etik 1200eko urtarrilaren amaiera bitartean.

Tomas Urzainki historialariak azaltzen duenez, «setioa bitartean, Gaztelako armadak Nafarroako gotorlekuak eraso-

tzeari ekin zion, eta defentsarik gabeko herrietan *razzia*-k egiteari, haiek arpilatuz eta harrapakin ugari eskuratuz (...) hiri eta gaztelu guztiak indarrez hartu zituen; batzuk suntsitu egin zituen eta beste batzuk errendiziora behartu, baina ezin izan zituen ez Trebiñu ezta Ibidako Portilla ere eskuratu (...) Beloaga (Oiartzun), Aizkorri, Arluzea, Zaitegi, Marañon, Gasteiz, Auza-Gaztelu, Ataun, Aezorika, Irurita, San Vicente, Buradon, Alkazar, Kanpezu, Antoñana, Atauri, Korteko Portela, Donostia eta Hondarribiko gotorlekuak harrapatu zituen». Nahiko garbi ikus dezakegu eraso izan zela, benetako inbasio militarra.

Arpilatze, legez kontrako okupazio eta indarkeriazko gertakari haren ondoren, segurtasunik eza nagusitu zen Euskal Herrian eta, gainera, zaituta eta puskatuta gelditu zen; zatiketa hori, distantziak distantzia, gaur eguneraino iritsi zaigu. XIII. mendean zehar, Gaztelak foruak eta hiri-gutunak eman zizkien lehendik baziren herriei: Salvatierra bihurtako Aguraini, gero Villafranca bilakatutako Ordiziari, Hernaniri, Hondarribiari. Lezori, Gasteizi, Tolosari, Segurari... Harresiak eraiki zizkien eta gerrarako hiri bihurtu zituen. Horrela, konkistatutako lurraldea defendatu egin nahi zuen Na-

farroaren aldetik herri haiek berreskuratzeko ahaleginen aurka. Herritarrei pribilegio fiskal eta juridiko batzuk ematearen truke, zaintza-tropa gisa erabiltzen zituen. Gainera, herri haietako alde aurreko foruak bertako ohituretan oinarriturik baziren, Gaztelako foruak erregearen subiranotasuna aldarrikatzen zuen (forua «eman» egiten zuen hark) eta, horrela, haren boterea eta agintea indartzen zituen.

Azpinarratzekoa da, dena den, eta Pedro Esarte historialariaren oharrak kontuan hartuta, herriak ez zirela populaziorik gabeko lekuetan sortzen, baizik eta bazirela alde aurretik, eta erregeek erabili egiten zituztela Karta emateko eta haien babesle, arbitro eta epaile bihurtzeko, aldamenekoekin zituzten liskarretan. Horrek jaunaren edo erregearen aginte hierarkikoa onartzea zekarren automatikoki.

## Gaizkileen muga

Horrela Gaztelak, armen bidez, muga artifiziale sortu zuen herrialde bereko herritarren artean, nazio bereko eta hizkuntza bereko jendearen artean. «Gaizkileen muga» sonatu hura etengabeko arazo, gatazka, krimen eta eskala handiko liskar armatuen sorburu izan

zen. Tolosatik hurbil gertatutako Beotibarko gudua kanpotik ezarritako ordenamendu eta lege arrotzen ondorioz sende ziren herrien arteko elkarbizitza haustearen adibide garbia dugu. Baina, halaber, orain ezagutzen dugun euskaldunen eta nafarren arteko banaketa zentzugabearen hazia da. Urzainkik dioenaren harira, Euskal Herriko herritarrek euskaldunak ziren hizkuntzaz eta nafarrak naziotasunez. Denak. Euskara *lingua navarrorum* zen. Nafarren hizkuntza Erreinu independentea inposatutako mugaz haratago iristen zelarik, mugaz honakook «euskaldunak soilik» bihurtu ginen, nafarren Estatuko kide izan gabe, naziotasunik gabe, esango genuke gaur. Gaur arte iritsi da zatiketa hori.

Bide batez, euskaldunek historian zehar eraikitako Estatu zatikatu eta ahultzeaz gain, Gaztelak konkistaren beste helburu estrategiko bat bete zuen: kostaldeko portuetarako eta Europarako bide bat zabaltzea. Hala da; hiri horien sorrerak, muga zehazteaz gain, Gaztelak iparralderantz, Frantziako eta Flandeseko merkatuetarantz behar zuen irtenbidea eskaintzen zuen. Jose Luis Orella historialariak honela azaltzen du: «1256an, Alfonso X. Jakitunak hiriak sortuz, Oria ibaiaren bidea hartu zuen Gaz-

telako arteak Atlantikoko portuetara helarazteko irtenbide natural gisa». Ez dugu ahaztu behar, dena den, dimentsio komertzial hori nahiz foruaren juridiko hori ez direla, inolaz ere, desinteresatuak. Izan ere, bide horretatik, Gaztelako botereak populazio, hizkuntza eta ohituren aldetik berekin zerikusirik ez zuen lurraldean finkatzea zuen helburu. Pizgarri ekonomikoa, Orellak ongi azpinarratzen duenez, ongi kalkulaturako asimilatze-formula zen, familia, ohitura eta hizkuntza bereko jendearen aurka eraikitako mugako herriak gotortzea bezalaxe.

Izan ere, eredu ekonomikoa disoziatzea, herriak izenez aldatzea, Ahaide Nagusien bertako familia batzuen indarra sustatzea (Oinaztarrena, adibidez), horrek guztiak Estatu propioarekin loturak haustea eta akulturazio- eta deserrozte-prozesu bat bultzatzea zuen helburu.

Laburbilduz, horren ondorio negargarriak gaur egun arte iritsi direla ikusita, ez dago ospakizun handirik egiterik data ilun haien harira, ez eta hiri-sorrera haien harira ere, gure izen propioak kentzearen, gure independentzia historikoa galtzearen eta gerrako harrapakin gainean eraiki baitziren.

ANGEL REKALDE ▶ IDAZLEA, TOLOSA (BERRIA, 2006-04-18)

UZTURRETIK ▶  
XABIER TELLERIA

## Omega 3



**A**merikanoen herritik dator notizia. Zerri transgenikoak lortu dituzte. Zizare geneak txertatuta. Antza, zerriak berezkoa duen gantza, egundaino gure gizarteari onurak eta ekarri dizkiona, azken urteetan kaltegarria bihurtu da gure bihotz sedentarioentzat. Baserrietako gure aiton-amonen ia haragi iturri bakarra izan dena, merkea bezain eskuragarria, gizaki modernoaren izurritea bihurtu zaigula, alajaina. Urdaiazpiko ondo gazituak eta xolomo goxoak ez direla gure komenientziakoak.

Hortik abiatuta eta zalan-tzan jarri gabe gaur egungo hazkuntza azkarreko sistematik, animalia horien elikadurak eta abar, zerri garbiago bat sortzeari ekin diote amerikanoek. Uler bedi, zerria beti zerri izanda ere, jaki bezala guretzat izango dela garbiago. Eta osasungarria den gantza, omega 3 delakoa, eruz ematen duen bio-zerria lortu dute.

Ilargiak alde ezkutua nola, halakoa du berriak ere berea. Oraingo, behintzat, zalan-tza handiak daude bio-zerri horren haragia jateko modukoa izango den. Alegia, bihotzarentzat kaltegarria izango ez den gantzadun *patanegra* izan genezake, nahiz eta haragiak ezertarako balio ez. Urdaiazpiko terapeutikoarekin ametsik ez, oraingo. Erretzerakoan kutsatzen ez duen gasolina asmatzea bezala, baina motorrak mugitzeko balio ez duena. Negozio ederra.

Zientzialari jende honek aspaldikoa du despistatu fama. Eta boteprontoan galdera neure buruari: erreparatu ote dute zizareek ez dutela hankarik?

Urdaiazpiko osasuntsua emango duen zerria bilatzen hasita, ez ziren bada gertuago geratuko kurrinko egiten duen zizare gus-tuko pizti hanka bakoa asmatzetik.

Imajinatzea ere...

**MAIATZAREN LEHENA** ▶ Lagilearen Nazioarteko Eguna da bihar, astelehena. Han eta hemen mobilizazioak antolatu dituzte sindikatuek. Langileen egoera, eskubideak eta aldarriak izan dituzte hizpide LABeko eta ELAko ordezkariak txoko honetan.

MARI MUJICA (TOLOSAKO LAB-EN IZENEAN) ▶

## Maiatzak 1: Euskal Herria libre eta sozialista

**E**uskal Herriak autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen du, beharrezko du erabaki ahal izatea eta bere erabakia askatasunez praktikan jartzea. Konponbide politikorako bidean gaude, bakerantz aurrera egiteko momentu erabakigarria, alegia. Baina hau posible bihurtuko bada, Euskal Herrian prozesu demokratikoaren bidez besterik ez da izango, herritar guztien eskubideak, hitza eta erabakia errespetaturik eta inolako interferentzia edo hipotekarik gabe.

Euskal herritarrak dira ekimen honetako benetako jasotzaile eta protagonistak eta, hortaz, jendartea bera da benetako aitzindaria lurraldetasunari eta autodeterminazio eskubideari buruzko akordioa zehaztuko duen negoziazio prozesuan. Inork ez digu ezer oparitu, aldarrikapen eta mobilizazio sozialaren bidez lortu behar izango dugu. Langileok Euskal Herrian bizi eta lan egiten badugu, bertan erabaki behar dugu.

Herri honetako langileriak, era berean, beste eredu sozial bat aldarrikatzen dugu, elkartasunean oinarrituta eta aberastasuna justuki banatuko duena, aberastasun hori langileok geure lanaz ekoizten dugu eta. Ezetz esaten diegu esplotazioari eta bazterkeriari, prekaritate mota guztiei, genero edo arrazagatiko diskriminazioei, patronalaren nagusikeri eta larderiari, multinazionalen alde egiten duten estatuak zein autonomietako gobernuen jarrierari.

Eredu ekonomiko neoliberal honek langileen kontra burutzen dituen eraso guz-

tiei aurre egiteko eta borrokatzeko erabakia beste behin ere berresten dugu: pribatizazioak eta azpikontratak, enpresen deslokalizazioa, lan istripuak, lan erreformak, dela Frantziako aldi baterako kontratuarena, dela Espainiako hurrengo lan erreforma.

Maiatzaren Lehen honetan euskal langileri osoari dei egiten diogu inoiz baino indartsuago eta inoiz baino ilusio handiagoz Euskal Herri berria eraikitzeko lan egin dezan, bere etorkizuna askatasunez erabakitzeko gai izango den eta eredu sozial eta ekonomiko justu, bidezko eta solidarioa eratuko duen Euskal Herria eraiki dezan.

Zentzu honetan, Tolosaldeko herritar guztioi bihar 09:00etan Triangulotik abiatuko den auto karabanan, eta ondoren Urretxun 12:00etan Potrosen plazatik hasiko den manifestazioan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu. Gora Euskal Herriko langileria! Gora munduko langileria!

### MOBILIZAZIOAK

«Tolosaldeko herritar guztioi 09:00etan Triangulotik abiatuko den auto karabanan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu»

RAMON IRAZU (TOLOSAKO ELA-REN IZENEAN) ▶

## Langile jendearen Euskal Herria eraiki

**I**ritsi zaigu maiatza eta datak gogorazidigu berriro langile klaseak bere bizitza baldintzetan eman dituen aurrerapausoak ez direla zerutik erori. Eta historian zehar eskuratzea lortu dituen eskubideak ere, ez direla kapitalak bere kabuz emandako zerbituak izan. Aldiz, langileek urte luzetan egindako borroken ondorioa gisa ulertu behar direla.

Interes kontrajarririk jokoan daudenean, ez dago kontsentsorik. Dagoena indar erlazioa da, ekilibrio puntu bat, egoera jakin batean. Komeni litzake hau beti kontuan izatea, nahiz eta besterik egon gaur egun oso modan. Zeren lortutako eskubideak mantentzeko indarrak ez duen langilea edo gizartea atzeraka hasiko baita, ziur aski.

Kapitalaren mundualizazioa dela eta, transnazionalak jaun eta jabe dira bazter guztietan. Eta gure instituzioek, gure politikoa neoliberal horiek, jende xumea babestu beharrean enpresario eta antzekoen interesen alde ari dira etengabe. Are gehia-

go. Multinazionalak daukaten botere izugarriaren atzean, erabaki politikoak daude. Eta, dudarik gabe, trataduak, legeak, fiskalitatea, presupuestoak... gauzatzekoan, hauen interesak daukate buruan.

Ez da egia beraiek bultzatzen duten gizarte ereduak langile jendeengan pentsatzu egiten dutela, nahiz eta bere propagandak bestelakorik esan. Enpresarioena jakina dago: bere helburua ahalik eta etekin handienak lortzea da. Hortakoxe daude. Baina guk aukeratzen ditugun politikoei nor babestu beharko lukete?

Greba batean, itxura gabeko zerbitzu minimoak ezartzen dituen Kontseilariak (sozialdemokrata, portzierto), grebaren

ondorioak zapuztu nahian. Zeinen alde ari da? Edo Tolosako zaharren egoitza itxi ondoren. Zumarragakoa itxi eta pribatizatu nahi dutenek adineko pertsonak dituzte buruan? Eta Osasun Zerbitzu Publikoak Tolosan kudeatzen zuen neurologia zerbitzua eremu pribatuara pasatzea erabaki dutenek gaixoetaz gogoratzu egin dute? Edo, udaletxetako urbanismo bulegoak: etxebizitzaren arazo larria daukate buruan bere erabakiak hartzerakoetan? Ala erakuntzan ari diren enpresarioak dituzte gogoko? Edo kontzertuak ematen dizkion ahalmenen erabilera, enpresarioek zerga gutxiago ordaintzeko denean... Edo presupuestoak superavitekin bukatzen direnean... Edo...

Hau ez da gure eredu. Oso bestelakoak dira guk nahi dugun gizarte ereduaren ezaugarriak. Ongizate soziala helburu eta langile jendea gogoan, aurtengo Maiatzaren Lehenean ere, hori aldarrikatuko dugu Bilboko kaleetan. Gora langile jendearen Euskal Herria!

### ALDARRIA

«Ongizate soziala helburu eta langile jendea gogoan, beste gizarte eredu aldarrikatuko dugu»

### iragarki laburrak ▶

#### LANPOSTUAK

**Laborategiak.** Hurrengo deialdiak teknikoak, unibertsitate laguntzaileak, ospitaleak. 943 31 37 82.

**Mantentze-lanak.** Mekanikariak, gidariak. Hurrengo deialdiak udalaxe eta Foru Aldundiarentzako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Elbarrituak.** Hurrengo deialdiak Foru Aldundiarentzako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak** behar dituzte: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, haurtzaindegiko hezitzaileak, gidariak, basozainak, garbitzaileak. 943 31 37 82.

#### Administrari laguntzaileak.

Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udalek administrari laguntzaile lanpostuak bete behar dituzte. Hilean 1.500 euro. 943 31 37 82.

**Gidariak.** Udaletan eta Foru Aldundian laster lanpostuak. Kontratu

mugagabeak. 943 31 37 82.

**Garbitzaileak.** Lanpostu finkoak: Eusko Jaurilaritza, ikastebeak, ospitaleak. 943 31 37 82.

**Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak.** Postu libreak Eusko Jaurilaritzan. Asteburuetan libre. 943 31 37 82.





IBARRA ▶ OLINPIADA TXIKIAK

# Gaurko herri bazkaria dute Olinpiadetako azken proba gozoena

Goizean nahikoa ibili ondoren, mahai inguruko festarekin amaituko dituzte aurtengoz Olinpiada Txikiak, umorez



Uzturpeko ikasleek eman zioten mimika saioari hasiera. Ederki aritu ziren. J. A.



Sendi Ekintza-B taldekoeen gisan, marrazketan nahiz mimikan trebeagoak direnak izan ziren. J. A.



IKE-A taldekoei gehiago kostatu zitzaion. Ezitia nola adieraziko genuke imintzioekin? Pentsatu! J. A.



Marrazki horrekin, zer izanen da, bada? fregona. Baina lagunak asmatu ere egin behar du. J. A.

## JAIONE ASTIBIA

Arian-arian, gaur dute azken eguna Ibarako Olinpiada Txikiak ere, baina ez horregatik motelena. Goizean goiz aterata hortxe ibiliko baitira herriko inguruetan mendirik mendi, ibilaldi neurtua egiten, elkarteen arteko joko hauetan parte harzen ari diren 12 taldeetako partaideak eta nahi duen guztia ere bai, noski. Halako ariketaldia eginda, noski, herrian gelditu diren kideek, prestatuko duten bazkaria merezia izanen dute.

Izan ere, horixe dute gaurko bigarren proba. Sukaldaritzakoa: bakailoa prestatu behar dute, Bizkaiko erara. Sailkapenerako puntuagarria izanen

## OLINPIADA TXIKIAK ▶

### GAUR

08:00. Ibilaldi neurtua.

11:00. Sukaldaritzakoa: bakailoa Bizkaiko erara.

14:00. Herri bazkaria.

Ondoren. Sari banaketa.

dena eta hauxe izanen dute gero herri bazkariko jaki garrantzitsuena ere, umorea, kantua, eta laguntasunaz gain.

Hori gaurkoa. Baina bitartean, atzo ere ez zen ongi pasatzeko aukerarik falta izan ibararren artean; mimikarako eta dastaketa bereziak egiteko beta izan baitzuten.

Mimikako proban, talde ba-

koitzetik bi kidek parte hartu zuten. Idazkariak emandako hitzak keinu, imintzio, mugimendu... mota guztiez baliatuz adierazi beharra izan zuen kide batek, besteak asmatzeko: batzuk ausartago, besteak erneago, bakoitzaren trebetasunaren ariorako puntuak irabazi zituzten; bide batez, jendaurreko erreparoa kentzeko ere baliagarri suerta zitekeen. Modu berean, marrazketa ere egin beharreko jokoan.

Ondoren, begiak itxita, eta bitxia dirudien arren, belarriak ere halaxe zituztela, edari dastaketa zuten egitekoa: 10.a ahora eramaterako, hara zer zapora nahasketa.

Ederki pasatzen jarraitzeko bidea badute gaur ere.

TOLOSA ▶ GIZARTEA



## 75 urteko bizitza DVDan

J. Astibia ▶ Atzo Gure Txokoa elkartearen 75 urteak jasota dituen DVDa aurkeztu zuten Kultur Etxean. Pablo Dendaluzek egin du, eta bertan elkartearen historiari errepasoa eman dio, bazkideen laguntzarekin. Elkarrekin burututako ekitaldiak iruditan jaso ditu: argazkiak, bideoak, adierazpenak... J. ASTIBIA

TOLOSA ▶ GIZARTEA



## Ingurumena, beti hor dagoena

J. Astibia ▶ Herenegun iluntzean, Naturagintzako jardunaldian ingurumena beti, baita hirian ere, hor dagoen zerbait dela azaldu zuen Joaquín Araujo hizlariak. Bitartean, hark esandakoaz komikia egin zuen Forgesek, jendez beteta ageri zen aretoan. I. GARCIA

TOLOSA ▶ AHT



## «Une larria da bizi duguna»

Erredakzioa ▶ Beste herritan egin duten moduan, Tolosan ere AHTren aurka kontzentratu ziren atzo eguerdian. Une larritzat jo zuten egungoa, Jaurilaritza eta Espainiako Gobernua kritikatu. Maiatzaren 6an batzarrera deitu dituzte herritarrek, Sanblasplakoko lekuan (Igarondoren ondoan), 12:00etan. L. MONTES

ASTEASU-OREXA ▶ JAIAK

JAIONE ASTIBIA - IMANOL GARCIA

Santa Kruz jaiak bete-betean bizitzen ari dira orexarrak eta asteasuarrak. Lehenengoek herenegun hasi zituzten festak eta Aiztondo aldekoek atzo ekin zieten ospakizunei. Oilarra eta Simon jaitzi zituzten, eta adin guztietako herritarrak murgildu dira jaietan.

Goiz eta arratsalde hurrek Asteasuko Elizmendi auzoa hartu zuten. Goizean duatloia egin zuten. Hogei neska-mutilek hartu zuten parte korrikan zein bizikletan egin beharreko ibilbidean. Guztientzako izan ziren sariak. Dominak banatu zieten, eta lehenengoek kopa ere jaso zuten. Podioa egin zutenek gozoki poltsa ederra eskuratu zuten. Ez dakigu, baina, beste parte-hartzaileekin banatu ote zituzten.

Simonen jaitziera izan zen arratsaldeko ekitaldi nagusia. Helduak mus txapelketan ari ziren bitartean, haur ugari inguratu zen elizara eta oihuka jaitseko eskatu zioten Simoni. Gargola hegodunak bizia hartu eta kanpandorretik jaisten hasi zen, paretara itsatsita. Horrelako batean, ibilbidearen erdian gelditu eta goxokiak jaurtiki zituen. Ondoren, hurrek jolasteko aukera ederra izan zuten hainbat jokotan.

Haurrentzako ikuskizuna

Orexako jaietan ere hurrek izan zuten protagonismoa atzo arratsaldean. Zirko Ttipiak prestatutako *Giriguai* ikuskizunetan 90 haur eta guraso elkarrekin ziren udaletxeko goiko aretoan. Ostiraleko eta atzoko gauan gazteei zuzendutako ekitaldiak prestatu zituzten.

Gaur ere hainbat ekitaldi izango dira bi herrietan. Orexan, xare eta joko garbi erakustaldia, sagardoa dastatzeko aukera, bertso saioa eta DJ Bullen disko festa. Elizmendis, gaur amaituko dira jaiak, eta jendea erakarriko du prestatutakoak: meza, hamaiketakoak, toka txapelketa, herri kirolak eta sokamuturra, eta guztia alaitzeko Laja eta bere taldea.

# Jai giro bete-betean sartuta daude bi herrietakoak

Simonen jaitziera egin zuten atzo Asteasuko Elizmendis eta gaur amaituko dira jaiak bertan; Orexan haurrak izan ziren protagonista atzo arratsaldean



Zirko Ttipiak Orexan atzo eskainitako ikuskizunaren une bat. JAIONE ASTIBIA

EGITARAUA ▶ GAUR

OREXA

**18:00.** Pilota jaialdia: xarean Irurako Ametsa pilota elkarte eta joko garbian Villabonako Behar-Zana pilota elkarte.  
**20:00.** Sagardo probaketa.  
**21:00.** Bertsolariak: Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu.  
**22:00.** Disko festa DJ Bullekin.

ASTEASU, ELIZMENDI AUZOA

**11:15.** Meza Santa Kruz ermitan. Ondoren, hamaiketako eta toka txapelketa. Laja eta bere taldearen emanaldia.  
**18:00.** Herri kirolak eta sokamuturra (zezen txikiak eta poneyak). Gero Laja eta Taldea.  
**22:00.** Simonen igoera.  
**23:00.** Laja eta Taldea, goizaldera arte.



Simonen jaitziera dotorea burutu zuen elizatik. I. GARCIA



Asteasun duatloian parte hartu zuten haurrak. I. GARCIA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
**50.000**  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Baliarrain.** Txekor jatea, 14:00etan. Aurretik: lore azoka, eskulana eta traste zaharren erakusketa. Bazkal ostean: marrazki eta argazki lehiaketako sari-ematea, eta Unsain anaien emanaldia.  
**Orendain.** Kultur Errotaren barruan, *Lazkao txiki* bertso ekitaldia eskainiko du Xabier Amurizak, 15:30ean, Eltxo elkartearen Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta.

**HITZALDIAK**

**Tolosa.** *Hacia una pastoral mas viva y renovada.* Jose Luis Lopetegik eskainitako saioa. Etzi, 18:00etan, Santa Mariako sakristian.

**MUSIKA**

**Alegia.** Begueseko (Bartzelona) Montau eta Alegiako Txintxarri Txiki haur abesbatzen kontzertua. 12:00etan, elizan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Plaza, M. Elbarren 36. 112.  
**Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

**Bihar**  
**Areso.** Goizueta, F. Loidi etxea. 112.  
**Tolosa.** Azpiroz, M. L. Amaro aztoa, 9. 943 67 51 18.

**IRRATIA**

**Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)**  
 Gaur 10:30-13:00. *Hitzak hegan* magazina. Bihar 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, Hitza-ren errepasoa, elkarrizketak, disko eskainiak... 21:00-22:00. *Argizirin aitaldia.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

**ARGAZKI LEHIAKETA ▶**



**IZASKUN ▶**

**Andu Martinez de Rituerto (Tolosa).**

«Apirilaren 23an, eskolako porrei amaiera emateko, familia osoa izaskunera joan ginen paseoan. Begira zein musker ederra topatu genuen arratsaldeaz gozatzen!»



**ECHO BAILARA ▶**

**Ainhara Apezetxea (Ibarra).**

«Apirilaren 16an atera genuen argazki hau, Valle de Echo-n (Huescako Pirinioak). Ur-jauzi polit bat da, elurra urtzen ari den seinale.»



**LEABURU ▶**

**Nagore Uribe Uribe (Tolosa).**


«Aste Santutan Leaburura joan ginen eta larrean animalia hauek ikusi nituen. Argazkia gustatu zait eta zuei bidaltzea bururatu zait.»



**BERASTEGI ▶**

**Izaskun Echechipia (Tolosa).**

Berastegin dago aterata irudi hau, apirilaren 15ean. Hala dio egileak: «Hau ez da Euro Disney, baina ipotxaren etxean ere ondo pasatzen da. Ez al da ala, Erkki?»




**LANDAK ▶**

**Txema Zabala (Tolosa).**

«Agazki hau Landetan atera nuen, Aste Santuan. Bertan hango irudi tipikoa azaltzen da: duna eta hondartza.»

**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK**  
 Jon eta Edurne.  
 Zorionak eta ondo-ondo pasa gaur. Etxekoan partetik.



**ZORIONAK**  
 Aintzane (Elduain).  
 8 urte. Zorionak zure guraso eta lbairan partez.

Urtebetetzeak,  
 urrezko ezteiak,  
 ezkontzak,  
 jaioberriak...

**hitza**  
 agurren  
 tarte